



HAL
open science

Euskara eta legeria Ipar Euskal Herrian: Gizarte elebidun baterantz aukerak eta mugak

Jean-Baptiste Coyos

► **To cite this version:**

Jean-Baptiste Coyos. Euskara eta legeria Ipar Euskal Herrian: Gizarte elebidun baterantz aukerak eta mugak. Bat : soziolinguistika aldizkaria : Hizkuntza normalizazioa eta glotopolitika aldizkaria, 2009, 1, pp.41-55. artxibo-00383564

HAL Id: artxibo-00383564

<https://artxiker.ccsd.cnrs.fr/artxibo-00383564v1>

Submitted on 13 May 2009

HAL is a multi-disciplinary open access archive for the deposit and dissemination of scientific research documents, whether they are published or not. The documents may come from teaching and research institutions in France or abroad, or from public or private research centers.

L'archive ouverte pluridisciplinaire **HAL**, est destinée au dépôt et à la diffusion de documents scientifiques de niveau recherche, publiés ou non, émanant des établissements d'enseignement et de recherche français ou étrangers, des laboratoires publics ou privés.

Euskara eta legeria Ipar Euskal Herrian: Gizarte elebidun baterantz aukerak eta mugak

Jean-Baptiste Coyos

IKER Euskarari eta Euskal Testuei buruzko Ikerketa Gunea
Helbide elektronikoa: jean-baptiste.coyos@wanadoo.fr

LABURPENA : Euskara eta legeria Ipar Euskal Herrian: Gizarte elebidun baterantz aukerak eta mugak

Artikulu honetan Frantziako hizkuntza-legeria eta oinarritzen duen hizkuntza-ideologia aurkezten ditugu. Erakusten dugu legeria hori zein desorekatua den, frantsesaren aldekoa izanez. Eskualdeetako hizkuntzak ez ditu aterbetzen. Halere euskal elkarte batzuek, euskaltzale ausartek hizkuntza-politika eremu zenbait ideki dituzte. Ondotik, duela gutxi, podere publikoak euskararen aldeko hizkuntza-politika proiektua sortu dute.

Oraiko legezko marko desorekatuan ere hizkuntza-politika publikoa, elkarteen ekintzak, gizartearen engaimendua azkarragoak, eraginkorragoak izan daitezkeela azpimarratzen dugu.

ABSTRACT : The Basque language and legislation in the Northern Basque Country: Possibilities and obstacles in the move towards a bilingual society

This paper examines current French language legislation and the language ideology upon which it is based. It shows how imbalanced the legislation is, in favour of French. Regional languages are not protected. Nevertheless, a number of resolute Basque associations and scholars have striven to develop certain fields of language policy, and subsequently, the public administration has recently presented a language policy which favours the Basque language.

The paper also highlights the fact that within the current imbalanced legal framework, public language policy, the activities of various societies and associations and society's commitment could be more effective and longer-lasting.

« Demokrazia ez da gehiengoaren legea, baina gutxiengoaren babesa »¹.
(Albert Camus,
frantses idazle Nobel sariduna, 1957)

« Azkarraren eta ahul denaren artean, aberatsaren eta pobrearen artean,
nagusiaren eta morroiaren artean,
libertatea da zanpatzen duena eta legea askatzen duena »².
(Henri-Dominique Lacordaire,
predikari domingotarra, 1848)

Artikulu honen testuingurua irudikatzeko bi aipamen horiek aurrean nahi genituen eman³. Uste dugu gure mintzagaia ongi kokatzen dutela.

¹ « *La démocratie, ce n'est pas la loi de la majorité, mais la protection des minorités* ».

² « *Entre le fort et le faible, entre le riche et le pauvre, entre le maître et le serviteur, c'est la liberté qui opprime et la loi qui affranchit* ».

EUSKARAREN OFIZIALTASUNA ETA OFIZIALTASUNIK EZA

Ezaguna da legeria mesedegarria biziki garrantzitsua dela hizkuntza gutxitu bat laguntzeko, jakinez legeria onuragarria izanik ere hizkuntza mehatxatua izan daitekeela. Hizkuntzaren estatutuari dagokionean, ofizialtasuna da hizkuntzaren aldeko estatutu juridiko baliagarriena izan daitekeena.

Frantziako eskualdeetako hizkuntzen kasuan estatutu horretatik urrun gaude. Frantziako hizkuntza propioek ofizialtasun izpirik ez dute oraino, frantsesak ez ezik. 2008. urteaz geroztik Frantziako konstituzioan aipatuak dira, baina ez Espainiakoan autonomia-erkidegoetan dagozkien hizkuntzak diren bezala. Bi estatu hoietan nazionalak ez diren hizkuntzen estatutu ofiziala osoki desberdinak dira.

Espanian hizkuntza horiek ofizialak dira gaztelania den bezala. 1978ko espainol konstituzioak bere 3.2. azpi-artikuluaren aitortzen du : « Espainiako beste hizkuntzak ere ofizialak izango dira haiei dagozkien autonomia-erkidegotan, beraietako estatutuekin bat etorritik ». Bere aldetik frantses konstituzioak dio bere 75.1. artikuluan : « Eskualdeetako hizkuntzak Frantziako ondare dira » (2008ko uztailaren 23ko lege konstituzionalaren emendakina).

Konstituzio hoietan nazionalak ez diren hizkuntza horiek izendatu ez dira, nahiz « eskualdeetako hizkuntzak », nahiz « Espainiako beste hizkuntzak »⁴.

Autonomia-erkidegoetako legeriek konstituzioak euskarari emate dion ofizialtasun hori berresten dute. Euskal Autonomia Erkidegoko 1982ko Euskararen Erabilpena Arauzkotezko Oinarrizko Legeak errepikatzen du aintzin-idazpuruaren hirugarren atalean, euskara aipatuz : « *Euskal Herriko Autonomia-Elkartearen hizkuntza-ofizialak euskera eta gaztelania dira* »⁵. Nafarroako Foru Komunitatearen 1982ko Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko Legeak dio bere 9. artikuluan « *1. Gaztelera da Nafarroako hizkuntza ofiziala. 2. Euskarak ere hizkuntza ofizial-maila izango du Nafarroako eskualde euskaldunetan* ».

1. FRANTZIAKO LEGERIA ETA HIZKUNTZAK

1.1. IPAR EUSKAL HERRIA ONARPENIK GABE, EUSKARA BEREZKO LEGERIK GABE

Hasi baino lehen oroitarazi behar da Ipar Euskal Herriak berak onarpen juridiko edo politikorik ez du. Beraz ezin du euskararen aldeko lege bat asmatu eta berretsi, Euskadin egin den bezala 1982ko Euskararen Erabilpena Arauzkotezko Oinarrizko Legearekin edo Nafarroako Foru Komunitatean 1986ko Euskarari buruzko Foru Legearekin.

Ipar Euskal Herriak existentzia legalik ez du, Pirinio Atlantikoetako departamenduaren zati bat baizik ez da. Aitortze administratiborik, autonomiarik ez du euskara ezagutzeko eta erabiltzeko eskubidea aitortzeko. Ondorioz, euskararen legezko estatutua, euskararen egoera juridikoa frantses legeriak du erabakitzen, trenkatzen, indarrean dagoen legeriak eta noski

³ Artikulu hau Udako Euskal Unibertsitatean Baionan 2008ko uztailaren eman dudan hitzaldiaren segida da, edukia aski berriztatua duena.

⁴ Frantziako kasuan, 1999an Eskualdeetako eta Ereku Urriko Hizkuntzen Europako Gutuna izenpetu nahi zuenean, gobernuak txosten bat galdetu zion Bernard Cerquiglini hizkuntzalariari jakiteko zenbat ziren. 75 aurkitu zituen euskara barne, itsas-haindiko frantses lurraldeak kontuan hartuz.

⁵ Mikel Zalbiden ustez gaztelaniaren eta euskararen ofizialtasun-bikoitz horren esanahia hain zehatz ez da, « ez formulazio teorikoaren aldetik eta ez, bereziki, bere inplikazio praktikoen ikuspegitik », in Euskararen legeak hogeita bost urte eskolako alorreko bilakaera : baliospen-saioa, *Euskera*, 52-3, Bilbo, Euskaltzaindia: 1481. or.

bereziki hizkuntza-legeriak. Euskarak berezko legeriarik ez du. Halaber euskaldunen balizko hizkuntza-eskubideekin.

Ikus dezagun beraz, laburbilduz, legeria hori zein den eta zein den oinarritzen duen ideologia⁶.

1.2. LEGE-TESTUEN LABURPENA

Frantzian indarrean den lege-testu zaharrena **Gizakiaren eta Herritarren Eskubideei buruzko Adierazpena** da (1789). 11. artikulua dio : « *Pentsamenduak eta iritziak askatasunez komunikatzea gizakiak dituen eskubideetatik baliotsuenetako bat da : herritar orok askatasunez hitz egin, idatz eta inprima dezake* ». Hizkuntza ez zela aipatua ohartzen da. Iduriz, libertate osoa zen. XX. mendeko bukaeran legeriak hizkuntza-alorra finkatuko du.

1.2.1. Konstituzioa

1958ko Errepublikaren konstituzioan ere hizkuntza ez zen aipatzen. Hona 1. artikulua zer dion : « *Frantzia Errepublika zatiez, laiko, demokratiko eta soziala da. Herritar guztien legeekiko berdintasuna ziurtatzen du, jatorri, arraza ala erlijio berezitasunik gabe. Sineste guztiak errespetatzen ditu (...)* ».

Konstituzioaren 2. artikulua. 1992an legebiltzarrean diputatuek emendakin bat egin diote konstituzioaren 2. artikuluari : « *Errepublikaren hizkuntza frantsesa da (1992). Nazioaren ikurra hiru koloreko bandera da, urdina, gorria eta zuria. Nazioaren ereserkia « Marseillaise » da. Errepublikaren goiburua « Askatasuna, Berdintasuna, Elkartasuna » da. Bere printzipioa da Herriaren gobernu, herriarengatik eta herriarentzat* ». Bandera, ereserkia, goiburua berrehun urte goizago iraultzaren garaian finkatuak izan ziren. Itxaron behar izan ditugu XX. mendeko azken urteak hizkuntza, frantsesa hain zuzen, frantses konstituzioan sar dadila.

Konstituzioaren 75. artikulua. 2008ko uztailaren azken emendakina egin diote konstituzioaren 75. artikuluari, lurralde-kolektibitatei buruzkoa denari : « *Eskualdeetako hizkuntzak Frantziako ondare dira* ».⁷ Kongresuaren bi ganberek testua bozkatu dute, Legebiltzarra eta Senatua elkarrekin, eta 2008ko uztailaren 23az geroz indarrean da. Lehen aldikoz frantses konstituzioak eskualdeetako hizkuntzak aipatzen ditu.

Aitortze hastapen mota dela erran dezakegu. Urrats bat da, baina egiazko aurrerapena den ala ez errateko ez da erraza. Geroak erranen du. Bistan da, oraiko galdera da Estatu Kontseiluak eta Konstituzio Kontseiluak etorkizunean artikulua konstituzional berri hori eta bigarren artikulua nola irakurriko dituzten, zeini lehentasuna emanen dioten. Noski, euskaltzaleek eta elkarteek azpimarratu dute emendakin horrek hizkuntzak ondareztat hartzen baititu, bizigabeko ondasun immaterialtzat eta ez eguneroko komunikazio tresna gisa hartzen dituela, onarpena sinbolikoa dela, zehaztapen konkreturik eskaintzen ez duela.

1.2.2. Legeak

Konstituziotik at, eskualdeetako hizkuntzei buruz indarrean diren lege edo testu juridikoen gehienak irakaskuntzarekin zerikusia du. Lege bakarra da, 1951ko **Tokiko hizkuntza eta dialektoen irakaskuntza** legea (Deixonne legea), eskualdeetako hizkuntzei

⁶ Euskaltzaindiak bere *Hizkuntza-zuzenbidea. Testu bilduma euskaraz* liburuan nazioarteko, Europako, Espainiako eta Frantziako hizkuntza-legeriaren laburpen esanguratsuenak euskaratu ditu. Legeria konparatua egin nahi duenak liburu hortara jo beza.

⁷ « *Les langues régionales appartiennent au patrimoine de la France* » (article 40 de la loi constitutionnelle n° 2008-724 du 23 juillet 2008).

emana dena⁸. Lege horrek lehen aldiz « tokiko hizkuntzen eta dialektoen ikastea » baimentzen zuen (1. artikulua). Baina irakaskuntza hori nahierarakoa zen (3. artikulua) eta hori ordudunik ez da sekula aldatu.

Geroztik hizkuntza horien irakaskuntza arautzeko dekretu batzuk onartu dira, lege berririk ez⁹. Hezkuntzaren alorrean indarrean diren lege-testuak denak biltzen dituen testua **Hezkuntzaren Kodea** deitzen da et hori da orain erreferentzia-testua. Bere L312-10 artikulua, « *L'enseignement des langues et cultures régionales* » deitzen dena, 2005ko apirilean aldatu izan da. Hau dio : « *Lurralde-hizkuntza eta kultura irakaskuntza eman daiteke eskola-ibilbide osoan zehar, estatuaren eta lurralde-kolektibitateen arteko hitzarmen baten bidez finkatuak diren modalitateen arabera, hizkuntza horiek erabiliak diren eskualdeetan* ».

Hedabideei buruz 1986ko **Komunikazio Askatasunari buruzko legea** badugu (Léotard legea)¹⁰. Lehen artikulua dio, besteak beste : « *Ikus-entzuneko komunikazioa askea da* » eta bigarrenak : « *Ikus-entzuneko komunikazioaren zerbitzu publikoak frantsesaren sustapena ziurtatzen du, eta erregioetako nahiz tokietako kultura- eta hizkuntza-ondarea balioesten du* ». 20-1 artikuluan esaten da : « *Frantsesaren erabilerari beharrezkoa da programa eta publizitate denetan (...) jatorrizko bertsiozko obretan ez ezik* ». ¹¹

Konstituzioa izan ezik, **Frantsesaren erabilerari buruzko legea** (1994, Toubon legea) da lege-testu garrantzitsua. Bere lehen artikulua adierazten du : « *Frantsesa, Konstituzioaren aginduz Errepublikaren hizkuntza dena, Frantziaren nortasuna eta ondarearen oinarrizko osagaia ere bada. Horixe da hezkuntzaren, garraioaren, trukeen eta zerbitzu publikoen hizkuntza (...)* ». 1992ko konstituzioaren 2. artikulua emendakinean oinarritzen da. Ondotik 13 artikuluan zehar legeak frantsesari beharrezkotasuna eta bakartasuna ematen dizkio, bizi publikoko alor desberdinetan dokumentu, jarraikibide, iragarki, argitalpen, hitzarmen, emankizun, ikuskizun, gertakari mota denetarik aipatuz. Ez ditugu hemen zerrendatuko. 16. eta 17. artikuluetan, arau hoi hausteko zigorrak zehaztu dira.

Halere 21. artikulua dio : « *Lege honen xedapenak aplikagarriak dira, Frantziako erregioetako hizkuntzen legeriari eta araudiei kalterik egin gabe, eta ez dira haien erabileraren aurkakoak* ». Baina artikulua horren hedadura, horren balioa neurtzeko ohartu behar da Frantziako eskualdeetako hizkuntzek berezko araudirik ez dutela, legeria propiorik ez dutela. Lege-testuetan diren hizkuntza hoiei buruzko aipamenek eraginik ez dute.

Gainera erran dezakegu, eta hau da ohar nagusia, Frantziako hizkuntza-legeria osoki desorekatua dela, frantsesaren aldekoa da¹². Frantziako eskualdeetako hizkuntzen kasuan jasankortasun mota indarrean da legezko eremuan, ez gehiago.

⁸ 2008an Kulturaren eta komunikazioaren ministroak erran du hizkuntza horien aldeko lege bat bozkatuko dutela 2009an. Aldi berean, ministroak Eskualdeetako edo Eremu Urriko Hizkuntzen Europako Gutuna berresten saiatuko ez direla erran du, Frantzia jadanik Gutanaren helburuetatik urrunago joaten dela baieztatuz. Pentsa dezakegu lege-proiektu horrek egoera ez duela asko aldatuko, eta, are okerrago, aitzakia izan daitekeela indarrean dagoenetik urrunago ez joateko. Indarrean dena onartzeko lege bat izan daiteke, eta ez gehiago.

⁹ Saio ugari izan da eskualdeetako hizkuntzen aldeko beste lege bat eskuratzeko. 1951ez geroz, berrogeita hamar bat baino gehiago lege proposamen aurkeztu izan dira *Assemblée Nationale* delakoan, hizkuntza horiek lege-onarpena izan dezen, edo konstituzioaren 2. artikulua hori emendatzeko edo aldatzeko, edo Eskualdeetako edo Eremu Urriko Hizkuntzen Europako Gutuna berrestartzeko. Gehienak ez dira eztabaidatuak izan ; izan direnak denak baztertuak izan dira. Erantzuna betikoa izan da : ezinezkoa dela edo geroko ikusteko litzatekeela.

¹⁰ Loi n°86-1067 du 30 septembre 1986 relative à la liberté de communication.

¹¹ « *L'emploi du français est obligatoire dans l'ensemble des émissions et des messages publicitaires des organismes et services de radio ou de télévision, quel que soit leur mode de diffusion ou de distribution, à l'exception des oeuvres cinématographiques et audiovisuelles en version originale* ».

¹² Frantziak, bere legeria propioa frantsesari osoki eman eta, nazioarteko testu batzuk izenpetzen eta berresten ditu, eragozgarriak ez direnak. Bestela bere erreserba-eskubidea baliarazten du edo, Europako Gutunarekin ikusiko dugun bezala, testua ez du berresten. Hor argi eta garbi da oztopo handi bat dugula Ipar Euskal Herrian hizkuntza-politika eraginkor bat indarrean jarteko, nahitaez.

1.2.3. Legeria ingelesa gelditu nahian, eskualdeetako hizkuntzentzat kaltegarria

Orotara ere erran dezakegu azken bi hamarkada hoietan frantsesa aterpetzeko eta sostengatzeko Frantziako hizkuntzei buruzko legeria emendatu, aldatu izan dela. Frantsesa arriskuan omen zela, bere biziraupena segurtatua ez zela eta beraz legeria babesgarriagoa asmatu behar zela erraten zuten ingurune politiko eta intelektual batzuetan.

Baina, azkenean, legeria berri hori Frantziako beste hizkuntzen aurka sistematikoki erabiltzen da. Beherago horri buruzko adibide batzuk emanen ditugu. Eta aipatzen zuten ingelesaren “inbasioa” legeriak ez du bat ere oztopatzen, helburu horrekin eginik izan bazen ere¹³. Ingelesa zientzien, ekonomiaren, kultura produktuen eta teknologia berrien bidez sartzen da frantsesean. Baina hori fenomeno normala da, hizkuntzak harremanetan dira eta bata besteari mailegatzten dute, bereziki sorburu-hizkuntzak bizindarra duen gizarte-eremuetan. Balizko lana daiteke gero mailegu horien itzultzea xede-hizkuntzan, gure kasuan frantsesean.

Hizkuntza-legeria erreberituak ingelesaren sartzea ez du gelditu, baina eskualdeetako hizkuntzentzei kalte egiten diete.

1.3. LEGERIA OINARRITZEN ETA BALDINTZATZEN DUEN IDEOLOGIAZ

1.3.1. Hizkuntza-ideologia kontzeptua - Hizkuntza-legeria desorekatua

Lege baten analisatzeak bere sortzea baimendu duen testuinguruaren analisia behartzen du. Halaber legeria oso batekin. Bistan da lan hori luze eta handia da, artikulu xume honetan handiegia litzatekeena. Halere uste dugu garrantzitsua dela aipatzea, laburki izanik ere, zein den gure ustez legeri hori oinarritzen eta baldintzaten duen ideologia.

Hitz bat ideologiaren definizioaz. Eguneroko bizian ideologia hitza konnotatua da. Aldiz hemen bere lehen adieran hartzen dugu, erran nahi baita ideia-sistema gisa. Gure kasuan bistan da jakin nahi genukeena da legeria sortu nahian zein zen legegileen hizkuntzei buruzko ideia-sistema, zein zen beren hizkuntza-ideologia. Toni Mollà soziolinguista katalandarrak definizio bat ematen digu : « Hizkuntza-ideologiak (*linguistic ideology*) hitzun baten edo hizkuntza-komunitate baten berezko hizkuntzari edo beste bati buruzko sineste, judizio eta aurreiritzi sistemak dira » (2005 : 100)¹⁴.

Beraz gure helburua litzateke jakitea zein den legegileen, parlamentarien frantsesari eta Frantziako beste hizkuntzei buruzko ideologia, gutxi gorabehera bederen.

Hizkuntza-legeriaz hori da Toni Mollàk erraten diguna : « Legeriaren gizarte-funtzioa hizkuntza baten erabilera ala ez izan denaren zirkunstantzien erregulazioa da (lurraldea, markoak, pertsonak, mintzagaiak, etab.). Lege-ordenamendua gutxi-asko ezberdin izanen da hizkuntza-taldeen botere graduaren arabera » (2005 : 224)¹⁵.

Azken ohar hori neurgailu gisa kontuan hartuz eta Frantziako hizkuntza-legeria zein desorekatua den ikusiz, euskararen eta eskualdeetako hizkuntzen kasuan hoi hizkuntza-taldeak, hizkuntza-komunitateak ahulak direla erran dezakegu.

¹³ Alain Lamassoure lapurtar diputatu ohiak, 1992an Legebiltzarrean konstituzioaren 2. artikulari emendakina aurkeztu zuen deputatuetatik batek, erraten zuen : « *Haserre naiz... emendakin bat pausatu dugu frantsesak ingelesaren onuran ez zuela desagertu behar markatzeko ... Emendakin horri iruzkin publikoak lotuak zitzaizkion... Frantziako eskualdeetako hizkuntzen garapena jokoan ez zela zehaztuz... Eta, Estatu Kontseiluak berariaz ginenen konstituzio egileen asmoa ez du kontuan hartu... » , *Mintza*, Euskararen Kontseiluko aldizkaria, 2003, 4, Ustaritze. Beherago ikusiko dugu nola Estatu Kontseiluak emendakin hori baliatzen duen.*

¹⁴ « *Les ideologies linguistiques (linguistic ideology) són sistemes de creences, de judicis e prejudicis d'un parlant o d'una comunitat lingüística sobre la llengua pròpia o sobre una altra* ».

¹⁵ « *La funció social de la legislació serà la regulació de les circumstàncies (territori, àmbits, persones, temes, etc.) en què una llengua serà o no serà usada. L'ordenament legal serà més o menys igualitari segons le grau de poder dels grups lingüístics implicats* ».

Hizkuntza-legeriaren desoreka hori desoreka demolinguistikoarekin (hiztun kopuruak, banaketa geografikoa), desoreka soziolinguistikoarekin batera doa (hizkuntzaren gizarte-funtzioak batez ere), desoreka psikolinguistikoarekin ere (norbanakoaren eta gizartearen mailan : segurtasun-falta linguistikoa, aitortze publikorik gabezia, hizkuntzaren balio sinboliko txikia, etab.).

1.3.2. Hizkuntza-ideologiaz Frantzian : adibide batzuk

Hizkuntza-ideologia hori aski ezaguna da. Halere garrantzitsua da zein den oroitaraztea, Ipar Euskal Herrian aukerak eta mugak ebaluatu nahi baditugu. Erran dugun bezala ideologia hori aurkezteak eta aztertzeak bere osotasunean lan sakon eta gotorra merezi luke, artikulu honetan luzeegi litzatekeena. Halere hona adibide batzuk.

« Frantsesa, salbuespen bakunarengatik, bakarra da ordena zuzenari leial egon zaiona. Frantses sintaxia ustelezina da. Horretatik bere argitasun miragarria etortzen da, gure hizkuntzaren oinarri betikoa. Argi ez dena frantses ez da », Antoine Rivarol (Frantses hizkuntzaren unibertsaltasunari buruzko mintzaldia, 1783)¹⁶. Aipamen hori ez da gaurkoa. Halere gaur eragina badu oraino, gure ustez, eta Frantzian klase sozial denetan frantsesa hizkuntza berezia, nagusia delako ustea hedatua da, besteak baino garrantzitsuagoa dela eta beraz bakarra izan behar dela Frantzian, eta aldi berean munduan zehar hedatuagoa.

Aldiz eskualdeetako hizkuntzek, interesgarriak izanik ere, frantsesak baino balio gutiago luketela. Ikus ildo honetan eskualdeetako hizkuntzen onarpena konstituzioan Frantziako ondarearen zati gisa. Horri buruz ohartarazi behar da ere nola, 2008ko ekainaren 12an, Frantziako Akademiak agiri batean jakinarazi zuen, besteak beste, frantsesa ez ziren Frantziako hizkuntzak konstituzioan agertzearen aurka zela. Gehiago ere, hizkuntza guzti horiek konstituzioaren lehen artikuluan aipatuko baldin balira, diputatuek lehen bertsioan egin nahi zuten bezala, eta frantsesa frantziar guztien hizkuntza dena bigarreanean baldin balitz, hizkuntza horiek frantsesaren gainetik egongo liratekeela jakinarazi zuen erakunde ospetsuak. Iruzkina hortan hizkuntza batzuen nagusitasunaren aurreiritzia agertzen da berriz. Gehiagotasun-sentimendu hori hedatua da frantses gizartean, iritzi publikoan, baina bai ere eta hori bitxiago da elite intelektualek zati batean.

Har dezagun beste adibide bat. Hélène Carrère d'Encausse akademikide andreak 2002ko abenduaren 5ean frantses akademian « Frantsesaren sokorri alde » (*Au secours du français*) deitutako mintzaldian erran du : « Baina bukatzeko zerumugan agertzen den beste motatako eta larritasun izigarriko mehatxua aipatu behar dut... Gaur egun botz batzuk entzuten dira, XVI. mendeaz geroztik bizi pribatuko aukerakoak ziren hizkuntzen alde mintzatzen direnak, frantsesaren ondoan lekua izan behar dezaten irakaskuntzan, bizi publikoan... Frantses hizkuntza bakarra da Frantsesen batasun morala eta kulturala eginen eta begiratuko duen hizkuntza... Ez dezagun bazter utz arrisku hori, salba dezagun gure hizkuntza garaia deno... »¹⁷. Hor beste aurreiritzi bat agertzen da : eskualdeetako hizkuntzek frantsesari kalte egiten diotela. Hemen hizkuntza hoiengoen errealitateari buruzko ezjakintasuna begi-bistan azaltzen da. Dakigun bezala frantsesa da eskualdeetako hizkuntzei kalte egiten diela, edo zuzenago frantsesaren eta eskualdeetako hizkuntzen aldeko politika desberdinek azken hoiengoi kalte egiten diete eta ez frantsesari. Frantsesa da sostengatu dena, eskualdeetako hizkuntzak gutxi edo inolaz ere hizkuntza-erabileraren gizarte-eremuen arabera.

¹⁶ « Le français, par un privilège unique, est seul resté fidèle à l'ordre direct (...). La syntaxe française est incorruptible. C'est de là que résulte cette admirable clarté, base éternelle de notre langue. Ce qui n'est pas clair n'est pas français », *Discours sur l'universalité de la langue française*, 1783.

¹⁷ « Mais je dois pour finir évoquer une menace d'une toute autre nature et d'une extrême gravité qui pointe à l'horizon... Aujourd'hui des voix s'élèvent pour plaider qu'il faut faire place aux côtés du français dans l'enseignement, dans la vie publique aux langues qui étaient depuis le XVIIe siècle du ressort de la vie privée... C'est la langue française qui seule incarnera et maintiendra l'unité morale et culturelle des Français... N'ignorons pas ce péril, sauvons notre langue quand il est encore temps... ».

Hona orain beste goiko erakunde publiko baten hizkuntza-ideologiari buruzko ilustrazioa, Konstituzio Kontseiluarena. Aipatu ditugun konstituzioaren lehen bi artikulua eta Frantsesaren erabilerari buruzko legea baliatuz, Kontseilu Konstituzionalak 1999an erabaki du Frantziak Eskualdeetako edo Eremu Urriko Hizkuntzen Europako Gutuna berretsi ezin zuela. Gutun horren hiru kontzeptu bazterten zituen konstituzioarekin inkompatible zirelako. Lehena, hizkuntzen lurraldetasuna, errepublikaren batasunaren aurka baitoala (konstituzioaren 1. artikulua). Bigarrena, hiztun multzoen eskubide kolektiboak onargaitzak dira, hiritarren berdintasunagatik (1. artikulua ere). Hirugarrena, eskualdeetako hizkuntzen erabilera publikoa ezin onartua dela frantsesa baita bizi publikoaren hizkuntza (2. artikulua). Beraz legeriaren irakurketa horren arabera frantses ez diren hizkuntzak norbanakoaren mailakoak dira, ez besterik.

« *Egungo estatuetakoa hizkuntz politika gehienek beren «nazio hizkuntzak» sustatzea izan dute helburu, azken mendeoaten behintzat... estatu barruan, beren «nazio hizkuntza» gisa hartutako hizkuntza edo aldeari prestigioa eman zaio... Politika horrek ondorio larriak izan ditu gainerako hizkuntza eta aldaerentzat: bazterketa, prestigio galtzea, arriskuan jartzea eta, batzuetan, baita haiek betiko galtzea ere » (Hizkuntzen Mundua: 145-146). Frantzia estatu hoietatik prototipoa eta abiarazlea da. Nazio hizkuntzaren aldeko politika hori beste zutabe batek egituratzen zuen eta egituratzen du, frantses iraultzaren geroz hedatu zen beste dogma batek : Estatu batek hizkuntza bat izan behar du eta ez gehiago. European XIX. mendean sortzen ziren estatu berrietan arrakasta handia izan zuen, eta gero ere munduan zehar sortzen ziren herri berrietan. « *Iritzi hau sortu du: estatu modernoek, moderno izateko eta hala sustatzeko, herritar guztiena hizkuntza bakar bat izan behar dute » (Hizkuntzen Mundua: 146). Dakigun bezala dogma hori, zentralismo estatalari lotua dena, oraiko gizarte modernoetan gero eta gehiago onartua eta bultzatua den eleaniztasunaren aurka badoa. Elebitasunaren, eleaniztasunaren balioa ez du kontuan hartzen.**

Laburbilduz erran dezakegu Frantzian hizkuntza-ideologia publikoa eskualdeetako hizkuntzen aurka doala, era orokorrean, aldatzen ari bada ere azken bi hamarkada hoietan, Europako eraginarengatik bereziki.

2. LEGERIAREN ERAGINAK IPAR EUSKAL HERRIAN - GIZARTE ELEBIDUN BATERANTZ

Testuinguru ideologikoa eta hizkuntza-legeria aurkeztu eta, lerroalde honen aztergaia da legeria horren gizarte-eragina zein den aztertzea Ipar Euskal Herrian, jakinez jurista ez garela. Gure analisia ez da aditu batena, ez ere ikerketa sakon baten emaitza. Halere uste dugu gauzak aski argiak direla, uste nahi genuke bederen.

2.1. EUSKALGINTZAREN EKINTZAK ETA ERAGINAK - HIZKUNTZA POLITIKA PUBLIKO BATEN LEHEN URRATSAK

Euskararen aldeko hizkuntza-politika publikoaren sortzea eta bilakaera euskalgintzaren historiari lotua da Ipar Euskal Herrian. Oraiko hizkuntza-politika publikoa ibilbide zail eta luze baten emaitza da. Hiru etapa izan ziren. 1995 : Garapen Kontseilua eta hizkuntza-antolaketa. 2000 : Hitzarmen berezia eta hizkuntza politika. 2005 : Euskararen Erakunde Publikoa eta hizkuntza politika berria¹⁸. Euskararen Erakunde Publikoa (EEP, *Office Public de la Langue Basque*) da 2004ko uztailaren 9an sortutako hizkuntza

¹⁸ Bibliografian den artikuluan Erramun Baxokek dokumentu hoiaren laburpena eta sorkuntzaren testuingurua emaiten ditu (*Euskera*, 2007, 52-3). Egituraren partaideak Frantses Estatuak, Akitania Eskualdeko Kontseilua, Pirinio Atlantikoetako Kontseilu Orokorra eta Euskal Kultura sostengatzen duen Herrien arteko Sindikata dira.

politikarako egitura publikoa. 2007an bete du hizkuntza politikarako proiektuaren lehen urtea. Ikus bibliografian EEP-ren 2007-2010 proiektua : *Hizkuntza politika proiektua « Hiztun osoak helburu, haur eta gazteak lehentasun »*. Horretan lehen aldikoz egiazko hizkuntza-politika egitarau bat proposatzen da, jakinez halere egiazko hizkuntza-plangintza ez dela. Politika berri horren eragina zein den ebaluatzeko goizegi da, egitura gaztea baita, jakinez urteak eta urteak behar baitira hizkuntza baten egoera aldatzeko¹⁹.

Hiru etapa horiek baino lehen euskal elkarte batzuek, euskaltzale ausart eta gogotsuek hizkuntza-politika eremu zenbait ideki zituzten. Horiek dira laburbilduz, prentsa eta literatura aipatu gabe :

— **Euskararen irakaskuntza euskaraz** : Ikastolak, murgiltze ereduarekiko ikastetxeak *Seaska* sarean. Lehen ikastola 1969an sortu da Ipar Euskal Herrian.

— **Helduen euskalduntze eta alfabetatzea** : *AEK*rekin bereziki, 1980an sortua den gau eskolen federazioa. Helduentzako klaseak eta ikastaldiak antolatzen ditu, besteak beste.

— **Euskarako ikastresna sortzea edo euskaratzea** : Bereziki *Ikas euskal pedagogia zerbitzuak* eskaintzen dituen argitalpenak eta dokumentazio zerbitzua.

— **Euskara hutsezko irratia** : *Gure Irratia* Lapurdin, *Irulegiko Irratia* Nafarroa Beherean eta *Xiberoko Botza* Zuberoan. Beren aldetik irratia publikoek betebeharrak gutxi badituzte eskualdeetako hizkuntzekin eta Ipar Euskal Herriko kasuan *France Bleu Pays Basque* irratia euskarazko eguneroko oren erdi bat ematen du gutxi gorabehera²⁰.

— **Euskarazko aisialdiak** haurrentzat : *Uda Leku* elkarteak eskolatik kanpoko euskarazko astialdi-jarduerak antolatzen ditu.

Denak ekimen pribatuak izan ziren. Administrazioak, kolektibitate publikoek ez zuten lan horretan parte hartzen. Alderantziz ere. Elkarteek, euskaltzaleek erakutsi eta erakusten dute laguntzarik gabe edo gutxierekin ere lan asko egin daitekeela.

2.2. ORAIKO MUGAK ETA OZTOPOAK : BOST ADIBIDE

Aipatu dugun konstituzioaren bigarren artikulua eranskin hori da eskualdeetako hizkuntzendako oztopo juridiko nagusia, hizkuntza horien aldeko aurrerapausoak oztopatzeko erabiltzen baitute Estatu Kontseiluak eta Kontseilu Konstituzionalak.

1. adibidea : **Eskualdeetako edo Eremu Urriko Hizkuntzen Europako Gutuna**. Oroitaraz dezagun nola 1999ko ekainaren 15ean, Kontseilu Konstituzionalak 2. artikulua eranskinaren irakurketa murriztailea egin eta, jakitera eman zuen *Eskualdeetako edo Eremu Urriko Hizkuntzen Europako Gutuna* Konstituzioaren aurkakoa zela. Horrengatik, nahiz eta Frantziak Gutuna sinatu zuen, ez zuen berretsi. 1.3.2. lerroaldean Kontseilu Konstituzionalaren arrazoiak aurkeztu ditugu, nola frantses errepublika oinarritzen duen ideologiari lotuak ziren erakutsiz.

2. adibidea: Estatu Kontseiluaren 238653 erabakia, 2002/11/29²¹. **Murgiltze eredu legeriaren aurkakoa** dela.

¹⁹ Laburbilduz, argumentuak aurkezteko lekuri ez baitugu, esan genezake Euskararen Erakunde Publikoaren politika berri horren proiektua aski aurreikusitako, hausnartu, zehaztu ez dela, aurrekontua aski murrizta. Iduri luke politika berri hori ez dela hain eraginkorra izanen, euskararen egoera zein den ikusiz Ipar Euskal Herrian.

²⁰ *Radio France* erakunde nazionalaren karguen koadernoko 6. artikulua dio, besteak beste : « *La société veille à ce que les stations locales contribuent à l'expression des langues régionales* [Erakundeak tokiko irratia estazioek eskualdeetako hizkuntzazko adierazpena bultzatzea dezan dela begiratzen du] ».

²¹ Estatu Kontseiluaren 238653 erabakia frantsesez in <http://www.lexeeek.com/jus-luminum/decision-ce-29-11-2002-238653.93333.htm>.

Instituzio publiko horren arabera, eskualdeetako hizkuntzak irakasteko murgiltze eredia Hezkuntzaren kodetik (*Code de l'éducation*) urrunago joaten da, ama-eskolan erabili diren hizkuntzak bakarrak baitira, euskara gure kasuan, eta gero ikasgelan eta bai ere ikasgelatik kanpo hizkuntza nagusiak baitira. Beraz murgiltze eredia, Seaskaren ikastoletako sarean erabilia dena, jasana baldin bada ere Frantzia, ez da osoki onartua. Alde batetik hezkuntza nazionalak ikastoletako irakasleen soldatak ordaintzen ditu, baina bestetik ikastoletako eredu pedagogikoa ez litzateke konforme konstituzioarekin.

Argi da irakaskuntza eredu hori hoberena, eraginkorrena dela hizkuntza gutxitu bat ikasteko eta irakasteko, bereziki Frantzia bezalako herri kasuan non eskualdeetako hizkuntzak bizi publikotik kasik baztertu diren eta familietan gutxi transmititu. Irakaskuntza eredu hori garatzen da Ipar Euskal Herrian, baina bere onarpena zalantzan dela esan dezakegu, osoa ez dela.

3. adibidea: 2002ko Estatu Kontseiluaren 238653 erabaki horren bigarren ondorioa da **parekotasuneko elebidun eredia mugatu behar** dela.

Estatu Kontseiluak erabaki du, Hezkuntzaren kodean oinarrituz berriz, elebidun eredian ikasgai oroen irakaskuntzaren zati bat frantsesez egin behar dela²². Beraz parekotasuneko elebidun ereduaren pedagogia mugatu dela esan dezakegu. Halere esan behar da, errealitatean, erabaki hori ez dela beti eta klase oroetan aplikatua. Klase elebidunetan, frantsesaren erabilera gerta daiteke euskararen irakaskuntzaren denboran, bainan ikasleen mailaren arabera, mintzagaiaren arabera, irakasleak beharra asmatzen duen denboran eta ez, hain zuzen, urrutiko instituzio baten aginduaren bidez, hizkuntzekin eta irakaskuntzarekin deus ikusteko duenik. Halere erabaki murrizgarri hori hor dago.

Hiru kasu hoiekin euskararen ofizialtasuna, euskararen legezko onarpena beharrezkoak liratekeela begi-bistan agertzen da, Estatu Kontseiluaren erabakien deuseztatzeko. Horrez gain, frantses instituzioen eta bai ere frantses herritar arrunten eskualdeetako hizkuntzei buruzko aurreiritziak aldarazi lituzke.

4. adibidea: **Azterketak eta konkurtsoak frantsesez**

1994ko Frantsesaren erabilerari buruzko legeak, bere 11 artikuluan, dio frantsesa dela irakaskuntzaren, azterketaren, konkurtsoen hizkuntza, nahiz ikastetxe publikoetan, nahiz pribatuetan, atzerriko edo eskualdeetako hizkuntzen eta kulturen irakaskuntzaren beharrei lotuak diren salbuespenetatik at²³. Eta ondorioz ikasleek proba denetan frantsesa erabilten dute, ikastoletakoek barne, bigarren hezkuntzaren erdian pasatzen duten DNB delakoa (*Diplôme national du brevet*) edo batxilergoa izan dadin. Hizkuntza-proba baldin bada orduan eskualdetako hizkuntza erabil dezakete, baina beste ikasgaietan frantsesa da azterketa-hizkuntza. Haur eta lehen hezkuntzan ez da hizkuntzari buruzko azterketarik edo neurketarik. Horrek erran nahi du Frantziako estatuan frantsesa ez den hizkuntza ikasten duten ikasleen hizkuntza-gaitasunak ez direla ebalatuak edo bederen gaizki, hori irakasleen-prestakuntzarako unibertsitate-eskoletako ikasleak arte.

²² Erabakiak dio : « *Considérant que ces prescriptions ouvrent des possibilités qui vont au-delà des nécessités de l'apprentissage d'une langue régionale et excèdent ainsi les possibilités de dérogation à l'obligation d'utiliser le français comme langue d'enseignement prévue par les dispositions des articles L. 121-3 et L. 312-11 du code de l'éducation* ».

²³ Hau da Frantsesaren erabilerari buruzko legearen 11. artikularen testua : « *La langue de l'enseignement, des examens et des concours, ainsi que des thèses et mémoires dans les établissements publics et privés d'enseignement est le français, sauf exceptions justifiées par les nécessités de l'enseignement des langues et cultures régionales ou étrangères (...). / Les écoles étrangères ou spécialement ouvertes pour accueillir des élèves de nationalité étrangère, ainsi que les établissements dispensant un enseignement à caractère international, ne sont pas soumis à cette obligation* ».

Ohar dezagun halere, baina ez gaude frantses hezkuntza nazionalaren alorrean, 2009ko martxoaren 3an Euskararen Erakunde Publikoak, Paueko eta Bordeleko unibertsitateek hitzarmena izenpentu dutela, euskara gaitasuna egiaztatzeko neurgailu bat indarrean ezartzeko, hau da Euskara Gaitasunaren Agiria. EGA Europako sailkapeneko C1-ren heinekoa da. Orain arte Euskaltzaindia zen EGA ematen zuen erakundea Ipar Euskal Herrian. EGAREN onarpena ofizialago dela erran dezakegu.

5. adibidea: **Diru-laguntzaz prentsari frantsesez ez denean**

Eskualdeetako hizkuntzazko prentsa aski xumea da. Eta Frantziako legeriak bizitzeko ez du laguntzen. 1996ko 96-140 dekretuak zion estatuak diru-laguntza publikoak frantsesez idatzi ziren aldizkariari begiratzen zizkiela. 2004an bereizkeria linguistiko hori ezabatu dute beste dekretu baten bidez, Frantzian erabili diren eskualdeetako hizkuntzei diru-laguntza horiek hedatuz²⁴.

Halere, podere publikoek jakinarazi dute frantsesez inprimatuak ez diren Frantziako aldizkariak beren buruari buruzko beharrezko lege-aipamenak frantsesez ere eman behar dituztela (argitalpenaren zuzendaria, bitariko batzorde zenbakia, inprimatzailea, etab.), prentsari ematen dion diru-laguntza eskuratzeko. Erabaki horrengatik ez da orain Frantzian, frantsesez salbu, argitaratuak diren hizkuntza hutsezko aldizkaririk gehiago.

Bukatzeke, luzeegi ez izateko nahian, esan behar da ere oztopoak eta mugak legezkoak ez direla bakarrik baina buruetan direla. Hori 1. zatian ikusi dugu hizkuntzei buruzko ideologiaz mintzatzen ginenean. Administrazioetan, baina ere enpresa pribatuetan ere, elkarteetan, pertsona batzuk ez dira prest oraino euskara bultzatzeko, euskara onartzeko bizi publikoan, egunorozko bizian.

2.3. AUKERAK ETA AURRERAPAUISOAK

Halere, orain arte lege lagungaririk gabe izan ere, elkarteei esker bereziki aurrerapen lortu dira euskararen alde Ipar Euskal Herrian, ikusi dugun bezala. Hizkuntza-politika baten lehen urratsak egin dira. Hona beste adibide batzuk.

2.3.1. Elebitasuna herriko etxeetan

Pirinio Atlantikoetako departamenduko prefetak eta Euskararen Erakunde Publikoko lehendakariak gutun elebidun bat igorri diete Ipar Euskal Herriko auzapez guztiei 2007ko maiatzaren 11n. Hona bi lerroalde esanguratsuenak:

« Bizitza publikoan euskararen erabilpenari arau eta legezko esparruari dagokionez, argitu nahi dugu euskara erabil daitekeela frantsesaren parean, dokumentu, zigilu eta komunikazio euskarri ofizial ezberdinetan, balio juridikoa frantsesezko bertsioek bakarrik dutelarik. (...) Sustapen lan hori, euskararen behin behineko erabilpen batentzat edo elebitasun osora heltzeko helburuarekin eraman daiteke, gisa guttiz nahitaezkoa delarik frantsesezko idazketa oso baten egitea ».

Idazki ofizialetan dena euskaraz ematea, frantsesezko bertsioaren parean, haizu zela jadanik bagenekien. Berritasuna da gutunaren bi izenpetzaileetarik bat frantses estatuaren departamenduko ordezkari gorena dela. Gutun horrek legezko balizko estakuru denak kentzen dizkie udal-administrazioiko buruei euskara baztertzeko beren udal-idazkietan. Erakusten du frantses estatuko ordezkari batzuen jarrera aldatu dela.

²⁴ Décret n°96-410 du 10 mai 1996 instituant une aide aux publications hebdomadaires régionales et locales : « L'aide est accordée aux publications régionales visées à l'article 1er et répondant aux conditions suivantes : - être écrites en langue française ». Décret n°2004-1312 du 26 novembre 2004 : « - être écrites en langue française ou dans une langue régionale en usage en France ».

Noski adierazpen horiek Ipar Euskal Herriko administrazio osoari hedatzea posible litzaikeela, era guztietan frantses testua beharrezkoa dela jakinez. Faltatzen eta behar bada faltatuko dena da nahimena, bereziki administrazio zentrolean.

2.3.2. Euskararen eta euskarazko irakaskuntza

Munduan zehar familian transmititu ez diren hizkuntza gutxituen babesteko nahian irakaskuntza lehen edo tresna bakarra dela ohartzen da. Hori da Ipar Euskal Herrian gertatu dena ere. Azken urte hoietan euskararen eta euskarazko irakaskuntza garatu da, bereziki ama-eskola eta lehen hezkuntzan. Garapen horri buruz hona zenbaki batzuk. 1993an adibidez, parekotasuneko elebidun eta murgiltze ereduak 2 907 ikasle eskolatzen zituzten. Ipar Euskal Herriko lehen hezkuntzako eskoletako ikasleetatik % 10 ziren gutxi gorabehera. 2007an ikasleak 7 259 ziren, lehen hezkuntzako eskoletako ikasleetatik % 29 izanez, ama-eskoletan % 35 baino gehiago. Baina eredu eraginkorra, ikasleentako murgiltze ereduak, da gutxiago garatzen dena, garatzen bada ere.

Halere, emendapen azpimarragarri hori eta Euskararen Erakunde Publikoak prestatu duen irakaskuntzaren epe luzeko programazioa zalantzan izan daitezke. Datozen urteetan Hezkuntza nazionalak irakasle lanpostu asko kendu beharko lituzke, Frantziako administrazio publikoaren murrizte politika aplikatuz²⁵.

2.3.3. Beste alor batzuk eta gizartearen engaiamendua

Gauza baliagarri berri batzuk egituratu ditu Euskararen Erakunde Publikoak. Euskararen teknikari sare bat garatu du sei lanposturekin herri elkargo edo hiritan, soldaten erdia bere gain hartuz. EPPko talde profesionala bera ere azkartu da zazpi langilekin orain. Giza-eremu berri bat ireki zaio euskarari, haur txikien harrerarena haurtzaindegi elebidun edo euskaradunetan. Beren aldetik elkarteek alor berririk sortu gabe, beren egiturak eta ekintzak azkartu dituzte, informazio eta komunikazio teknologiak baliatuz ere.

Hots eta bukatzeko, frantses legeria aurkakoa izanik ere, azpimarratu behar da, gure ustez, euskararen aldeko gauza, ekintza, aurrerapen gehiago egin daitezkeela Ipar Euskal Herrian. Baina gizartearen atxikimendurik gabe euskararen aldeko eginahalak alferrikakoak lirateke. Iduri luke oro har, gutxitu nahi gabe ere, Ipar Euskal Herriko gizartearen euskararen aldeko jarrera orokorra indartsu ez dela. Halere, eta aldi berean, iduritzen zaigu euskararen aldeko ekintzak eta eginahalak gero eta gehiago normalizat hartuak direla²⁶.

3. AZKEN HITZA : LEGERIA DESOREKATUA

Artikuluaren izenburura itzultzeko, oraiko legezko markoan ere hizkuntza-politika publikoa, elkarteek ekintzak, gizartearen engaiamendua azkarragoak, eraginkorragoak izan daitezkeela azpimarratu behar da. Horrek ez du esan nahi euskararen ofizialtasuna ez dela aldarrikatu behar, euskararen aldeko legeria onuragarria ez dela galdetu behar.

Egin dugun ibilbidea irudikatzeko hona zuzenbide mailan bi hizkuntzen arteko desoreka laburbiltzen duen taula bat.

²⁵ Irakaskuntza horren muga eta ahulezia batzuei buruz ikus Coyos, 2008 : 90.-91. or.

²⁶ Botere publikoen jarreraren aldaeraz hona adibide bat Pirinio Atlantikoetako departamenduko prefetarekin. 2000an Euskal Herriko Hitzarmen berezirako bilkura batean, prefetak Eusko Jaurlaritzaren elkarteendako dirulaguntza « diruaren bidezko kolonizazioa (*colonisation par l'argent*) » zela esan zuen. Baina 2007ko otsailaren 7an Eusko Jaurlaritza eta Euskararen Erakunde Publikoaren arteko hitzarmena izenpetu dute, Eusko Jaurlaritzak Ipar Euskal Herrian ematen dituen diru-laguntzak elgarrekin kudea ditzaten eta 2008ko urtarrilaren 24ean Pirinio Atlantikoetako prefeta Bilbon zen Euskaltzaindiak eta Euskararen Erakunde Publikoak beren arteko hitzarmena izenpetu dutenean. Zer aldaketa !

Gizarte-eremu batzuk eta zuzenbidea	frantsesa	euskara
Lege-estatutua	ofiziala	aitortzerik gabe
Konstituzioak dio	hizkuntza nazionala	ondarearena
Hizkuntza-komunitatea	bai	ez
Erabiltze-eskubidea	publikoa eta pribatua	pribatua
Administrazioa	ezinbestekoa	onartua eta baliorik gabe
Justizia	ezinbestekoa	ez onartua
Irakaskuntza	ezinbestekoa	aukerakoa
Azterketak, probak	ezinbestekoa	ez onartua
Komunikabide publikoak	ezinbestekoa	laguntzekoa

BIBLIOGRAFIA

- Baxok, Erramun (2007). Euskararen legea 1982ko oinarrizko legea, euskeraren erabilpena araukotzekoa Ipar Euskal Herriko ikuspegi bat, *Euskera*, 52-3, Bilbo, Euskaltzaindia, 1553.-1571. or.
- Coyos, Jean-Baptiste (2004). *Politique linguistique Langue basque et langue occitane du Béarn et de Gascogne*, Donostia-Baiona, Elkar.
- Coyos, Jean-Baptiste. <http://www.gipuzkoaeskara.net/Search?all=coyos> : 9 artikulu Ipar Euskal Herriari buruzkoak eta Frantziako hizkuntza politikaz.
- Coyos, Jean-Baptiste (2008). Hizkuntza-politika Ipar Euskal Herrian: nondik nora? Ibilbidearen azterketa, *Bat Soziolinguistika aldizkaria*, 67, Soziolinguistika Klusterra, Andoain, 79.-102. or.
- Euskaltzaindia (2007). *Hizkuntza-zuzenbidea. Testu bilduma euskaraz*, Jagon bilduma 5, Bilbo, Euskaltzaindia.
- Euskararen Erakunde Publikoa (2006ko abendua). *Hizkuntza politika proiektua « Hiztun osoak helburu, haur eta gazteak lehenetsun »*, polikopi elebiduna, www.flarep.com/IKAS-BI/OfficePublicDecembre2006.pdf.
- Frantses gobernu. Loi n° 94-665 du 4 août 1994 relative à l'emploi de la langue française [Frantsesaren erabilerari buruzko legea], <http://www.culture.gouv.fr/culture/dglf/lois/loi-fr.htm>
- Frantses konstituzioa. 1958-2008, <http://www.assemblee-nationale.fr/connaissance/constitution.asp#114>
- Mollà, Toni (2002-2005). *Manual de sociolingüística*, Alzira (Valencia), Edicions Bromera.
- Zenbaiten artean (2005). *Hizkuntzen mundua Munduko hizkuntzei buruzko txostena*, Bilbo, UNESCO Etxea -Euskal Herriko Unibertsitatea.